

94/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtu ESiko Larrialdietakoko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

#### AURREKARIAK

Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 11koa 1775/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtu ESiko Larrialdietakoko Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 16an EHA 250 zk. eta 2021eko abenduaren 23an BOE 306 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urtarrilaren 14an amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Bilbo-Basurtu ESiko Larrialdietako(e)ko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbo, 2022ko urtarrilaren 20an.

Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentea,  
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



**ZUZENDARI GERENTE**  
DIRECTOR GERENTE  
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano



**I. ERANSKINA**

**LARRIALDIETAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Juan Ignacio Larruscain Zorroza jauna

Baztertuak:

- Inor ez